



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Ainhoa Artetak amaiera bikaina emango dio Arriaga Antzokiaren denboraldiari, Leonard Bernsteinen musika interpretatuz *I hate music* kontzertuan

- Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) eta Bilboko Korak lagunduko diote sopranoari Arriaga Antzokiak ekoiztu duen eta Karl-Heinz Steffens maisu ospetsuaren musika zuzendaritza duen kontzertuan.
- Michal Friedlander piano jole bikainak bakarlari moduan egiten duen ekarpena azpimarratu behar da, beste piano jole bat ere izango duen musika ikuskizunean: Rubén Fernández Aguirre.
- Duela 100 urte jaio zen Leonard Bernstein konposatzaile, zuzendari eta piano jole estatubatuarra, XX. mendeko musika kulturaren ezinbesteko erreferentea, eta ikuskizun honen bitartez omenaldia eskainiko zaio.

Bilbon, 2018ko ekainaren 14an.- Arriaga Antzokiak urrezko amaiera emango dio datorren astean 2017-2018 denboraldiari, figura azpimarragarri gisa **Ainhoa Arteta** sopranoa duen musika ekitaldi bikainarekin. Ostegunean, ekainaren 21ean, eta larunbatean, 23an, 20:00etan, *I hate music* lana estreinatuko da. Arriaga Antzokiak berak ekoiztu duen kontzertuak omenaldia eskaini nahi dio XX. mendeko musikaren jeinu handienetako bati, **Leonard Bernstein** paregabeari, datorren abuztuaren 25ean jaio zenetik 100 urte betetzen direla ospatzeko.

Soprano tolosarrak luxuzko laguntza izango du kontzertu handi horretan. Hasteko, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)** eta **Bilboko Korala**. Talde horiek erronka berri eta ilusioz betetakoari egingo diote aurre, hau da, Bernsteinen musika interpretatzeari. Azpimarragarria da Italian jaiotako **Michal Friedlander** piano jole israeldar bikainaren partaidetza, piano jole bakarlari gisa arituko den lehen mailako artista. *I hate music* lanean maila bikaineko beste piano jole bat ere arituko da, **Rubén Fernández Aguirre**. Interprete guztiak **Karl-Heinz Steffens** maisuaren batuta irmo eta ospetsuaren esanetara arituko dira. Musika zuzendari alemanak sona handia du nazioartean, bai operaren munduan eta baita alor sinfonikoan ere. Hori dela eta, bere ekarpena aberasgarria izango da, inolako zalantzarik gabe.

Musika hitzordu horrek bestelako zenbait elementu interesgarri ere izango ditu, **Sergio Verdek** sortutako ikus-entzunezkoak edo **Michael Bauerren** argien diseinua, besteak beste. Halaber, **Barbora Horáková Jolyk** eta **Eva Maria Van Ackerrek** *I hate music* lana aurrera eraman ahal izateko egin duten koordinazio lana ere nabarmendu behar da. Musika emanaldiak, Leonard Bernsteinen musika mundura hurbiltzeko leiho txikia izan nahi du, bere jaiotzaren mendeurrena ospatuz. Kontzertuak bere jatorri judua eta New Yorkeko hiriarekin izan zuen harremana izango ditu kontuan. Izan ere, bertan bizi

izan zen bere bizitzaren parte nagusia, eta bere musikarako etengabeko inspirazio iturri izan zen.

Bernsteini buruzko lerro batzuk

28 urte dira jadanik, **Leonard Bernstein** konposatzaile, zuzendari eta piano jole estatubatuarrak utzi gintuela. Inolako zalantzarik gabe, XX. mendeko musika kultura amerikarraren erreferente nagusietakoa izan zen. Bere izaera polifazetikoak musika bera gaingitu zuen. Izan ere, pedagogo, filantropo, filosofo, bakezale, telebistako izar... ere izan zen artistaz ari gara. Konbentzionala zenetik aparteko iritziak eta karisma izugarria zituen izaera handiko jeinua.

Bere lan zabalak genero asko hartu zituen, eta horrek antzezlanak, orkestrarako, ahotserako, kamerarako, pianorako... lanak idaztera eraman zuen, zenbait libururen argitalpena barne. Bere musikako harribitxien artean betirako geratu zaizkigu *Candide* edo *West side story*, beste askoren artean.

SARRERAK ARRIAGA ANTZOKIA

- 15 eta 51 euro artean
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

I HATE MUSIC

Musika zuzendaritza: **Karl-Heinz Steffens**

Interpretatzaileak:

Sopranoa: **Ainhoa Arteta**

Pianoa: **Rubén Fdez. Aguirre**

Piano bakarlaria: **Michal Friedlander**

Orkestra: **Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)**

Abesbatza: **Bilboko Korál Elkartea**

Argiztapena: **Michael Bauer**

Ikus-entzunezkoak: **Sergio Verde**

Koordinazioa: **Barbora Horáková Joly eta Eva Maria Van Acker**

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus